



FORU AGINDUA

Donostia/San Sebastián, 2020ko azaroaren 17a

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuko Turismoko Zuzendaritza Nagusiaren erronka nagusietako bat legealdi honetarako Gipuzkoa Turismo marka Lurralde Historikotik kanpo sustatzea da, horretarako komunikazio-kanalak eta sistemak erabiliz, bereziki sare sozialak (Twitter, Instagram, YouTube, etab.).

Hala ere, Turismoko Zuzendaritza Nagusiak ez ditu eginkizun hau burutzeko adina baliabide tekniko ezta esperientziarik ere, hortaz egokizat hartzen da laguntza teknikoa kontratatzea Gipuzkoa Turismo markaren turismo-komunikazio estrategia garatzeko.

Horretarako, Departamentuko Turismo Plangintza eta Kudeaketa Unitateak kontratazio hori arautuko duen baldintza teknikoen agiria idatzi du. Zerbitzu horren lizitazio aurrekontua 53.000,00 euro da gehi 11.130,00 € %21eko BEZa kontzeptuan, guztira 64.130,00 €. Kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, izenpetzen denetik aurrera eta beste bi urtebetez luza daiteke. Kontratuaren balio zenbatetsia 159.000,00 euro da, gehi BEZa, Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 101. artikulua ondo oinarriturako.

Lanen zenbatekoa ikusirik, lizitazio prozedura irekia erabiliko da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak, 131.2 eta 156 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio espedientearen tramitazio administratiboa errazte aldera, eta espediente hori zerbitzuak emango diren urtearen aurreko aurrekontu ekitaldian hasiko denez, alde aurretik izapidetuko da, horretarako bide ematen baitute 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak, 117 artikuluan, eta abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteak alde aurretik izapidetzeari buruzkoak, 3. artikuluan.

Uno de los principales desafíos de la Dirección General de Turismo del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la presente legislatura consiste en promocionar la marca Gipuzkoa Turismo fuera del Territorio Histórico, utilizando para ello los canales y sistemas de comunicación, y en particular las redes sociales (Twitter, Instagram, YouTube, etc.).

Sin embargo, la Dirección General de Turismo no cuenta con suficientes medios técnicos y experiencia para llevar a cabo directamente esta tarea, por lo que se ve conveniente contratar un servicio de asistencia técnica para el desarrollo de la estrategia de comunicación turística de la marca Gipuzkoa Turismo.

A tal efecto, la Unidad de Gestión y Planificación Turística del Departamento ha redactado el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación citada, cuyo presupuesto de licitación asciende al importe de 53.000,00 euros más 11.130,00 € en concepto de IVA (21%), total 64.130,00 € y con un plazo de ejecución de 1 año desde la formalización del contrato, prorrogable por otros 2 años más. El valor estimado del contrato a los efectos del artículo 101 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público es de 159.000,00 euros más IVA.

Dada la cuantía de los trabajos la licitación se llevará a cabo por el procedimiento abierto de acuerdo con lo previsto en los artículos 131.2, 156 y concordantes de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

A fin de agilizar la tramitación administrativa del expediente de contratación, y dado que el mismo se inicia en el ejercicio presupuestario inmediatamente anterior a aquél en que va a materializarse la prestación, el expediente de referencia va a ser objeto de tramitación anticipada, de acuerdo con lo previsto en el artículo 117 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público y en el artículo 3 del Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.



Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuetan kontratazio honetarako kreditu egokia eta nahikoa egon ohi da aurrekontuko 1.0230.300.227.99.01. kontu sailean.

Egokia ikusten da lanak talde berak egitea; horregatik baztertu da sortaka banatzeko aukera.

Hori guztia ikusita, eta ados egonik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuko foru diputatuak

EBATZI DU

Lehenengo.- Onartzea **TURISMOKO ZUZENDARITZA NAGUSIARI GIPUZKOA TURISMO MARKAREN TURISMO KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA GARATZEN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUEN** kontratazio espedientea (A06/20-SE/T).

Lizitazioaren aurrekontua 53.000,00 euro da gehi %21eko BEZari dagozkion 11.130,00 euro, guztira 64.130,00 euro. Kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, eta beste bi urtebeteko luzapenak izan ditzake.

Bigarren.- Onartzea aipatutako zerbitzuaren kontratazioa arautu behar duten preskripzio teknikoen agiriak eta administrazio klausula partikularrak.

Hirugarren.- Espedientea aurrez tramitatzea, kontuan hartuta, beti ere, kontratua esleitu ahal izateko ezinbestekoa izango dela Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021eko aurrekontuetan kreditu egoki eta nahikoa egotea, kontratazio horretatik datozen betebeharrei aurre egiteko.

Laugarren.- Xedatzea kontratua esleitzeko lizitazioa irekitzea, prozedura ireki bidez, eta agintzea dagokion iragarkia argitara dadila kontratatzailearen profilean.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

En los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa existe habitualmente crédito adecuado y suficiente para la presente contratación en la partida presupuestaria 1.0230.300.227.99.01.

Se considera que los trabajos deben realizarse por el mismo equipo por lo que no se estima su división en lotes.

Visto todo ello, y considerado conforme, este Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

RESUELVE

Primero.- Aprobar el expediente para la contratación de **SERVICIOS DE ASISTENCIA TÉCNICA A LA DIRECCIÓN GENERAL DE TURISMO PARA EL DESARROLLO DE LA ESTRATEGIA DE COMUNICACIÓN TURÍSTICA DE LA MARCA GIPUZKOA TURISMO (A06/20-SE/T)**

Su presupuesto de licitación de 53.000,00 euros más 11.130,00 euros en concepto de IVA (21%), total 64.130,00 euros y su plazo de ejecución de un año con posibilidad de dos prórrogas anuales.

Segundo.- Aprobar los pliegos de prescripciones técnicas y cláusulas administrativas particulares que han de regir la contratación del citado servicio.

Tercero.- Tramitar anticipadamente el expediente, quedando condicionada la adjudicación del contrato a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 2021, para hacer frente a las obligaciones derivadas de dicha contratación.

Cuarto.- Disponer la apertura de la licitación por el procedimiento abierto para la adjudicación del contrato y ordenar la publicación del correspondiente anuncio en el perfil del contratante.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES, a partir del día siguiente al de su notificación.



Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi HILABETEKO epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka eta baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen orrien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsoren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante este Diputado Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer previa y potestativamente el RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquel en que se hayan recibido o puesto a disposición. En ambos casos no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

FORU DIPUTATUAK,

Izptua.: Jabier Larrañaga Garmendia

